

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Luis Elkoro Unamuno

*Bergara,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Elgetan jaioa, bertako eskolan
egin zituen oinarrizko
ikasketak. 11 urterekin
interno bidali zuten
Gasteizera, Batxilergoa
egitera. Gogorra egin zitzaion
hango giroa, erabat
erdalduna. Bueltan, aitarekin
hasi zen lanean tailerrean. 18
urtetatik Bergaran egin du
bizimodua. 27 urterekin Elay
enpresa sortu zuen,
Antzuolan, euskara-plan
aitzindari bati esker gaur
egun euskaraz funtzionatzen
duena. Enpresari bezala ez
ezik, herrigintzan eta
politikagintzan ere
nabarmendu da Jose Luis.
Birritan izan zen Bergarako
alkate. Alkartunahi
elkartearen ordezkari gisa
hasi zen zinegotzi lanetan
eta, alkate izendatu
zutenean, hainbat proiektu
ipini zituen martxan herrian.
Alkate Mugimendua ere sortu
zuten, Euskal Herri mailako
aldarrikapenekin. Amnistiaren
aldeko batzordean parte
hartu zuen, ikurriñaren
legeztapena negoziatu,
Xiberta negoziazio-mahaia
antolatu... 1977n Herri
Batasuneko sorreran egon
zen eta geroztik ibilbide luzea
izan du ezker abertzalean:
Madrilen diputatu, Gasteizen
legebiltzarkide, Gipuzkoan
batzarkide... Hainbat saiakera
egin zituen ETaren eta
Espainiako gobernuaren
arteko konponbidea lortu
nahian. HBko Mahai
Nazionaleko kide izateagatik
kartzelaratu zuten, eta 18/98
auziarekin lotuta ere zigortu
zuten. 'Egin' egunkariko
administrazio kontseiluko
presidentea izan zen. Bereziki
80ko hamarkada bitarteko
kontuak jaso ditugu egin
dizkiogun bi elkarriketetan.

Zintak

BER-365

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-02-15
- **Iraupena:** 139 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

BER-366

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-02-16
- **Iraupena:** 100 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

BER-375

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2023-02-16
- **Iraupena:** 86 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Gerra sasoian familia banatuta

- **Erref:** BER-365/002
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:00:43. **Bukatu:** 00:03:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gerra sasoian, Elgeta bonbardatu zuten eta alde egin behar izan zuten etxetik. Familiako kide batzuk amaren jaiotetxea zen Bergarako Aldai baserrira joan ziren eta besteak Lapurdi baserrira. Beraien etxea txikituta geratu zenez, familiaren jatorrikoa zen Mantu etxean bizi izan ziren zenbait urtez. Gero etxe berrira aldatu ziren. 18 urterekin Bergarara joan zen. Bertan ezkondu zen eta bertan bizi izan da ordutik.

2. Elgetako eskola nazionalean adin ezberdinetako umeak batera

- **Erref:** BER-365/005
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Umetan Elgetako mojen eskolan ibili zen 5-6 urtera arte eta gero eskola nazionalean. Maisua burgostarra zen, falangista. Sala handi batean adin ezberdinetako umeak batera egoten ziren. 11 urterekin, herrietan ez zegoenez horretarako aukerarik, Gasteizera joan zen Batxilergoa egitera. Errebalida, berriz, Valladoliden egin zuen.

3. Eskola garai gogorra: euskara debekatuta, zigorrak...

- **Erref:** BER-365/006
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:10:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Elgetako eskola nazionalean maisua falangista zen. Klasea hasi aurretik Espainiako ereserkia abestu behar izaten zuten zutik eta maisuak "Viva España" eta halakoak esaten zituen. Gainera, gogorra zen maisua. Makilarekin jotzen zituen bernetan edozer gauzogatik. Debekatuta zuten euskaraz egitea eta beraiek ez zekiten gaztelaniaz.

4. Euskaraz alfabetatu zen euskaltegi eta barnetegietan

- **Erref:** BER-365/009
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:14:48. **Bukatu:** 00:16:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Euskaraz beti egin izan duen arren, eskolan dena gaztelaniaz ikasi zuenez, euskaraz alfabetatu gabea zen. Gerora euskaltegi eta barnetegietan ibili zen ikasten. Gaur egun gai da euskaraz idazteko eta irakurtzeko.

5. Gasteizko kolegioan irakasle falangistekin izandako arazoak

- **Erref:** BER-365/011
- **Iraupena:** 0:05:51. **Hasi:** 00:17:22. **Bukatu:** 00:23:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Gasteizen ez zuten bereizkeriarik bizi izan euskaldunak izateagatik; harreman normala zuten. Eskolan falangeko kideekin bakarrik izan zituzten arazoak: gimnasia ematen zien irakaslearekin eta "Formación Nacional" irakasten zienarekin. Beraiek kirolean onak izatea ez zitzaien gustatzen. Gasteizen txapeldun geratu eta Madrilera joan behar ziren Espainiako txapelketa jokatzera, baina beste batzuk bidali zituzten. Irakasle falangistari protesta egin ziotelako, berari eta Errenteriako ikaskide bati falangeko irakasgaian ez gaituzten jarri zieten. Hori gabe ezin zuten errebalida egin eta larri ibili ziren. Irakasleak begitan hartuta zeukan Jose Luis, behin Alfa lantegiaren inguruan hitz egin ziolako.

6. Falangeko liburuak San Juan sutan erre zituzten

- **Erref:** BER-365/012
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:23:13. **Bukatu:** 00:24:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ekainean oporrak hartzen zituzten Gasteizko kolegioan. Azkeneko kurtsokoak errebalidako azterketarako presatzen geratu ziren. San Juan sua egin eta falangeko liburuak erre zituzten bertan. Ez zen inor konturatu. Artean ez zuen kontzientzia politikorik.

7. Alfa lantegiaren ospea; Eibarko hileta zibilak

- **Erref:** BER-365/013
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:24:36. **Bukatu:** 00:26:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

17 urterekin artean ez zuen kontzientzia politikorik. Eibarko Alfa lantegiaren berri bazekien, baina etxean eta kalean entzundakoagatik. Alfak ospe handia zuen; han lan egiten zuena ez zen edozein. "Alfistak" esaten zitzaien bertako langileei. Eibarren sozialistek agintzen zuten. Hileta zibilak egiten ziren. Elgetan jakiten zituzten Eibarko berriak.

8. Euskararen eta ikastolaren aldeko apustua

- **Erref:** BER-365/015
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:28:07. **Bukatu:** 00:30:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Beti izan da oso mendizalea. Pol-pol mendizale elkartearekin asko joaten zen mendira. Frankismo sasoia zen eta denborarekin politikaz hitz egiten hasi ziren. Berak 5-6 urteko semea zuen eta ikastolak bultzatzeko lanean hasi zen. Ardura ere bazuten, jendeak esaten zuelako, ikastolak lizentziarik ez zuenez, han ikasitakoak ez zuela balioko. Hala ere, euskararen aldeko apustua egin zuten eta semea Bergarako lehenengo ikastolan hasi zen.

9. Bi ikastola Bergaran: Konbenio kalekoa eta Batzoki zaharrekoa

- **Erref:** BER-365/017
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:32:16. **Bukatu:** 00:33:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Garai batean, Aranzadi sortu aurretik, bi ikastola egon ziren Bergaran: Konbenio kalekoa eta Batzoki zaharrekoa. Batzokiko ikastolatik Amilibiaren akademiara pasatzen ziren ikasleak. Akademiaren lizentzia baliatu zuten ikastolarentzat.

10. Alkartu-nai elkartearen sorrera; herriko beharrak identifikatzen

- **Erref:** BER-365/024
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:43:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Sagarpe elkarte gastronomikoan sartu zen eta bozketa bidez zuzendari aukeratu zuten. Bergaran zenbait behar zeudela ikusita, bilera bat egin zuten elkarte ezberdinetako zuzendariak eta Alkartu-nai elkarte sortu zuten. Juanjo Arrieta izan zen lehen zuzendaria. Lehenengo ikusi zuten beharra herrian anbulantzia bat jartzearena izan zen. Dirua lortzeko, "errifak" (txartelak) saltzen zituzten hasieran. Gerora, tonbola ere jarri izan zuten.

11. Alkartu-nai elkarteko kide bat Udalera, zinegotzi gisa

- **Erref:** BER-365/025
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:43:38. **Bukatu:** 00:45:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Alkartu-nai elkarteak edozer gauza lortu ahal izateko, Udalera jo behar izaten zuen. Horregatik elkarteko kide bat Udalean sartu nahi izan zuten ("terzio kulturala"ri esker). Juango Arrieta sartu zen zinegotzi moduan, baina denbora gutxi egin zuen eta Jose Luis sartu zen gero haren ordeiz. Frankismo sasoia zen. Luis Lascurain zen alkate.

12. Zinegotzi frankismo sasoian; alkate nola izendatu zuten

- **Erref:** BER-365/026
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:45:05. **Bukatu:** 00:49:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Bera zinegotzi moduan Bergarako Udalera sartu zenean, Udala frankista zen. Baina ordurako bazeuden 4-5 pertsona Udalaren filosofiarekin bat ez zetozenak. Esaterako, sindikatu bertikalari aurre egin ostean, Udalean sartzea lortu zuten sindikatu "klandestino"ko kideak. Greba egiteagatik lantegitik kanporatuak izan ziren hainbat kidek sortu zuten talde hori. Udaleko plenoetan ez zen ezer eztabaidatzen; alkateak botere osoa zuen erabakietan. Franco hil ostean, Arias Navarro presidenteak lege bat jarri zuen, esanez 10.000 biztanle baino gehiago zuten herrietan zinegotziek alkatea aukeratu zezaketela. Horri esker, bera izendatu zuten alkate. Orduko zinegotziak: Irazola, Otaegi, Mendibil, Valle...

13. Jaialdietarako Gobernu Zibilaren baimena behar

- **Erref:** BER-365/028
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:50:34. **Bukatu:** 00:51:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Jaialdiak antolatzeke, Donostiako Gobernu Zibilaren baimena behar izaten zen.

Bera joaten zen, Udaleko zinegotzi izan zen sasoian. Bertsolariek zer kantatu behar zuten idatziz jartzeko eskatzen zieten.

14. Ikastolarentzat gelak egokitzeko, diru eskatzen zuten Madrilen

- **Erref:** BER-365/029
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:51:45. **Bukatu:** 00:54:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Bergarako Seminarioan Aranzadi ikastolarentzat gelak prestatzen hasi zirenean, obra batzuk egin beharra zegoen eta diru-laguntzak eskatzen zituzten Madrilen. Jose Mari Larrañaga aparejadoreak egindako proiektua eta aurrekontua aurkezten zituzten, dirua jasotzeko. Antza denez, Espainiako beste leku batzuetatik ez zuten eskolak egokitzeko dirurik eskatzen eta Gubernukoei amorrua ematen zien horrek.

15. Alkartu-nai elkarteak eta Unceta familiak herriari egindako ekarpenak

- **Erref:** BER-365/030
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:54:33. **Bukatu:** 00:57:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Alkartu-nai elkartearekin Bergararentzat hainbat gauza lortu zituzten. Harreman estua izan zuten Bergaran lur-sail handiak zituen Unceta familiarekin. Familia horrek doan eman zituen gorren elkartea, anbulatorioa eta jubilatuen elkartea egiteko lur-sailak. Udalak parte-hartze zuzena izan zuen hiruen gestioetan.

16. Gureak lantegiaren sorrera 1975ean

- **Erref:** BER-365/031
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:57:22. **Bukatu:** 00:59:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Gureak lantegiaren sorreran parte hartu zuen. 4-5 umerekin hasi ziren.

Bazkide gisa sartu zen, 100.000 pezeta jarrita (1975eko agiria erakusten du). Aspace-ren sorreran ere parte hartu zuen eta baita elbarri fisikoentzat sortutako Elbarri-lan elkartean ere. Bergarako Seminarioan hasi ziren bai Gureak eta baita Elbarri-lan ere.

17. Bergarako adinekoen erresidentzia hobetzeko proiektua

- **Erref:** BER-365/032
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:59:15. **Bukatu:** 01:02:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Bergarako adinekoen erresidentzian gizonak eta emakumeak banatuta egoten ziren eta ematen zitzaien arreta nahiko kaskarra zen. Hori aldatu beharra zegoela eta proiektu bat egin zuten, bera alkate zela. Zerbait aurreratua egin nahi zutenez, arkitektoak Suediara bidali zituzten hango erresidentziak ikustera. Madriletik diru-laguntza jaso zuten. Proiektua beraiek aurkeztu arren, ondorengo Udalak eraman zituen aurrera eraikuntza-lanak. Beraiek martxan jarritako zerbitzuen errepasoa egiten du.

18. Alkartu-nai elkartearen eta Unceta familiaren arteko harremana

- **Erref:** BER-365/033
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 01:02:13. **Bukatu:** 01:06:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Unceta familiak lur-sail asko eman zizkion doan Udalari, Elgoro alkate izan zen sasoian. Eskolak ere egin ziren sail horietan. Unceta familiak ez zuen harreman onik aurreko Udalarekin, baina Alkartu-nai elkartekoekin bai. Mojei komentua txiki geratu zitzaiera eta Unceta familiak eman zizkien komentu berria egiteko lur-sailak. Mojei jarritako baldintzetako bat beraien hilarriak hantxe jartzea izan zen. Hiletan Alkartu-nai elkartekoek eraman zuten hil-kutxa. Santa Marina parkearekin izan zituzten negoziaketak.

19. Gorrentzako egoitza egiteko proiektua

- **Erref:** BER-365/034
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:06:01. **Bukatu:** 01:07:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Gorrentzako egoitza egiteko proiektuan Pablo Garai enpresari arrasatearra izan zen bultzatzaile nagusia. Jose Antonio Agirrebeñak eta Jose Luisek berak ere parte hartu zuten. Unceta familiaren lur-sailak erabili ziren, Alkartu-nai elkartearen bitartez. Gestioak Jose Luisek egin zituen.

20. Burgosko idazkaria urte luzez Bergarako Udalean

- **Erref:** BER-365/035
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 01:07:04. **Bukatu:** 01:11:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Jose Luis alkate egon zen sasoian, idazkariaren papera garrantzitsua zen. Idazkaria Burgosetik zetorrela jakitean, hori saihesten ahalegindu ziren, baina ez zuten lortu. Udalean dena gaztelaniaz egiten zen eta berak asko sufritzen zuen horrekin. Andereño batekin hitz egin eta behintzat aktak euskaratzea lortu zuen. Idazkari lana egiteko pertsona euskaldun bat jarri zuten, baina ez zuen lanbidea ezagutzen, artean ez zegoelako idazkari euskaldunik. Udaleko langileak ondoen ezagutzen zituen Donato Gallastegi jarri zuten hari laguntzen, baina hala ere ezin. Urte luzez egon zen idazkari erdalduna, harik eta Donostiara joan zen arte.

21. Udala herritarrengana hurbiltzea lortu zuten

- **Erref:** BER-365/036
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:11:36. **Bukatu:** 01:14:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Jose Luis Bergarako Udalean sartu zenean, Udalak ez zuen prestigio onik eta herritarrek ez zuten harekiko interesik. Beraiek ahalegin handia egin zuten hori aldatzen, eta Udaletik herriaren premiak identifikatu eta konpontzen. Jende asko inplikatu zuten eta jende asko joaten zen beraien plenoetara. Auzoei auzo-alkateak izendatzea proposatu zieten eta auzo-alkate horiek ere plenoetara joaten ziren. Horrek guztiak aberastasuna eman zion herriari.

22. Frontoiak egin zituzten auzoetan; Angiozarko frontoia

- **Erref:** BER-365/037

- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:14:44. **Bukatu:** 01:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Bera alkate zela, frontoiak egin zituzten Bergarako auzoetan. Angiozarko frontoiarekin egon zen arazoa. Frontoiaren azpitik ur korronteak pasatzen zirela eta teknikoek han ez zegoela ezer egiterik esan zieten. Eskolan bizi ziren maisuak ere Zabalotegira eraman zituzten bizitzera, han ez zegoelako bizitzetik. Frontoia bota eta berria egitea proposatu zuten beraiek, baina EAJk kontra egin zien eta, diru pila bat gastatuta, frontoia berritu zuten. Handik urte batzuetara, arazo berarekin jarraitzen zuten, bota eta berria egin behar izan zuten.

23. Uholdeek hondatutako baserri-bideak nola konpondu ziren

- **Erref:** BER-365/038
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:16:55. **Bukatu:** 01:18:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bergarako auzo askotako bideak hondatuta geratu ziren uholde batzuen ondorioz. Gipuzkoako Foru Aldunditik dirua lortu zuten eta baserritarrei baserri bakoitzetik lanerako pertsona bat bidaltzeko baldintza jarri zieten. Horrela konpondu zituzten bide guztiak. Aitzindariak izan zirela dio.

24. Bergarako UNED martxan jartzeko gestioak egin zituen

- **Erref:** BER-365/039
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:18:14. **Bukatu:** 01:20:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

"Promoción Cultural Bergaresa"rekin elkarlanean sortu zen Bergaran UNED martxan jartzeko ideia. Cainzos irakasleak egin zuen proposamena, Madrilen egon ostean. Arpal irakasleak ere ordurako bazuen UNEDen berri. Bera zen alkate eta UNED martxan jartzeko gestioak egin zituen. Dirua Gipuzkoako Foru Aldunditik, Kutxatik eta Laboral Kutxatik lortu zuen.

25. Alkate Mugimendua; ideia eta deialdia

- **Erref:** BER-365/044
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 01:26:48. **Bukatu:** 01:30:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Foruak desegin zirenetik 100 urte beteko zirela eta Alkateen Mugimendua sortzea pentsatu zuten, 1931n Lizarran egindako bilkuran onartutako estatutua gogora ekarri. Herriz herri horren berri eman ostean, 1976ko uztailaren 21ean egin zen bilkura Bergarako udaletxean. Bildu zirenetako asko ez ziren alkate, baizik herriko ordezkari. Herrietako alkate askok ihes egin zuten garai hartan, ETA alkate frankistak hiltzen hasi zelako. Beste kasu batzuetan, Bergaran moduan, jada bestelako jendea sartzen hasita zegoen Udalean. Erantzun ona izan zuen deialdiak. 72 herritako ordezkariak bildu ziren. Batzuek ikurrinarekin joan ziren.

26. Alkate Mugimendua; ekitaldiaren inguruko gertaerak

- **Erref:** BER-365/046
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:31:39. **Bukatu:** 01:35:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1976ko alkateen bilkuraren bezperan, Tejero etorri zitzaion, ezin zutela aurrera egin eta beraiek parte hartuko zutela esatera. Baina beraiek bilkura legala izan zedin, plenoa balitz bezala planteatu zuten eta Gobernu Zibilaren baimena ere bazuten. Egunean bertan polizia ugari egon zen. Arrasatekoak oinez joan ziren, alkatea buru zutela. Kontrolean gelditu zituzten eta haien zain egon ziren ekitaldiari hasiera emateko. Hitzaldia eman ostean, Arzalluz, Garaikoetxea eta Ardantza joan zitzaizkion besarkatzera. Jose Antonio Agirreren alarguna, Telesforo Monzonen emaztea eta Areilzaren familia ere egon ziren. Nestor Basterretxeak Bergarako enparantzan jartzeko eskultura bat egitea proposatu zion.

27. 1977an debekatutako alkate-bilkura eta ikurrinaren legeztatzea

- **Erref:** BER-365/048
- **Iraupena:** 0:08:40. **Hasi:** 01:35:54. **Bukatu:** 01:44:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Bergarako 1976ko alkateen bilkura eta gero, nafarrek beste ekitaldi bat antolatu zuten 1977an Etxarri-Aranatzen. Garaikoetxea ere antolaketa-taldean ibili zen. Bezperan Altsasun bildu ziren 20-30 pertsona, dena ondo zegoela ziurtatzeko. Han zeudela, EAJko Jauregik, Gobernuarekin lotura-lana egiten zuenak, ekitaldia debekatu egin zutela esan zien. Hala eta guztiz ere, aurrera egitea erabaki zuten, baina herrietatik abiatu ziren autobusei ez zieten pasatzen utzi poliziek. Horren ostean, Martin Villa ministroak bilera batera deitu zituen alkateak. Bilera luze baten ostean, ikurrina legeztatzea onartu zuen.

28. Ikurrinaren plazaratzea, legeztatu ondoren

- **Erref:** BER-365/049
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:44:34. **Bukatu:** 01:47:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ikurrina legeztatu zenean, Mariano Ferrerri eman zioten albistea irratitik zabaltzeko eskusiba. Ikurrina 1977ko urtarrilaren 20an plazaratzea erabaki zuten, baina, Donostiako alkate zen Lasak 19an jarri nahi zuela eta eguna aurreratu zuten. Egun horretan herri guztietan eta diputazioetan ere jarri zen ikurrina, baita Nafarroan ere. Jende asko batu zen herrietan. Bilboko gobernadore zibilak, alkateak eta Foru Aldundiko arduradunak dimititu egin zuten.

29. Alkate mugimenduaren hasiera; AP-1 autobidea

- **Erref:** BER-365/050
- **Iraupena:** 0:07:25. **Hasi:** 01:47:14. **Bukatu:** 01:54:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Alkate mugimenduaren hasiera. Udalean sartuta egon ez arren, bazegoen talde bat politikaz jarduteko elkartzen zena. Euren taldea osatzeko eta indartzeko, zenbait arrazoi egon ziren. Horietako bat Maltzaga-Armiñon AP-1 autobidea. Espainiako lehenengo autobidea izango zena eraikitze proiektua bidali zuten Europatik, irizpide ekologikoak ere kontuan hartuta. Bi talde aurkeztu ziren. Bata bertakoa, Jose Maria Agirre Gonzalo, ekonomia munduan prestigio handikoa zenak zuzendua eta probintzietako banku eta kutxek babestua. Eta bestea Madrilgoa, Calvo-Soteloren koinatua zen Rafael del Pinok zuzendua. Hauek irabazi zuten lehiaketa, baina berehala aldaketak egin zituzten proiektuak. Madrilera joanda, Jose Luisek eta taldekideek hainbat eztabaida izan zituzten orduko herri-lan ministroa eta zuzendaria ziren Calvo-Sotelorekin eta Aldamarekin eta, azkenean, ez ziren ausartu obrak aurrera eramaten.

30. Alkate mugimenduaren hasiera; zentral nuklearrak

- **Erref:** BER-365/051
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:54:39. **Bukatu:** 01:57:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Alkate mugimenduaren hasiera. Euren taldea osatzeko eta indartzeko, zenbait arrazoi egon ziren. Inguruetan egin nahi ziren zentral nuklearrak gelditzea izan zen horietako bat. Lemoizen jada lanak aurreratuta zeuden eta beraiek sartu aurretik jada bazegoen beste talde bat. Hala ere, beraiek ez zutela izan hainbeste zerikusi dio; ETAk bi ingeniari hiltzeak geldiarazi zuen. Deban Iberdrolak lurra erosita zeuzkan zentrala egiteko. Kanean egindako protesten bidez lortu zuten gelditzea.

31. Txibertako bilerak, batasuna lortu nahian

- **Erref:** BER-365/054
- **Iraupena:** 0:08:44. **Hasi:** 01:59:37. **Bukatu:** 02:08:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » Hauteskundeak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Udaletxeko teilatuaren konponketa zela-eta hasi zuten harremana Telesforo Monzonekin. Geroago, herrian alderdi politiko asko eta zatiketa handia zegoelako, kezkatuta, harengana jo zutenean, EAJrekin eta ETArekin (orduan hiru ETA zeuden) bilera egitekotan zegoela esan zien. Jose Luis arduratu zen gainontzeko alderdi politikoei bilera horretarako deia egiteaz. Txibertan (Hendaian) egin ziren bilerak. 1977ko martxo inguruan hasi zituzten bilerak. Ekainean lehenengo hauteskundeak ziren. ETA prest agertu zen armak uzteko, baina hasieratik baldintza bat jarri zuen: frankismo garaiko presoak askatzea. Alderdi guztiak ados agertu ziren, EAJ kenduta. Hainbat bilera egin ziren arren, ez zuten adostasunik lortu eta batasuna puskatu egin zen. Jose Luisek dio erabakiaren atzean PSOE egon zela, EAJri autonomia-itun bat eskaini ziolako. Baina, hauteskundeak pasa ostean, ituna bertan behera utzi zuen PSOEk.

32. Nafarroa Autonomia Estatututik kanpo utzi zutenekoa

- **Erref:** BER-365/055
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 02:08:21. **Bukatu:** 02:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Gipuzkoako Foru Aldundian izan zuten beste bilera garrantzitsu bat: Autonomia Estatutua. Nafarroa kanpoan uztea erabaki zuten. Bertan bildu ziren hainbat kide eta euren taldetik joan zirenak aipatzen ditu. Eztabaida gogorak izan zituzten. Ez zuten izan ezer egiterik.

33. Alkate mugimenduaren desegitea

- **Erref:** BER-365/056
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 02:11:35. **Bukatu:** 02:13:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Hauteskundeak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Alkate mugimenduak hutsune bat bete zuen. Alderdiak legez kanpo zeuden sasoian, herriaren beharrak betetzen saiatu ziren. Alderdiak legeztatzean eta hauteskundeak hastean, beraien taldeak jada ez zuela zentzurik dio. Taldea desegin egin zen eta bertako kideak alderdi ezberdinetan sakabanatu ziren.

34. Bizi izan dituen mehatxu eta arriskuak

- **Erref:** BER-365/059
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 02:15:35. **Bukatu:** 02:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Alkateen Mugimenduak indar handia izan zuen. Gestio asko egitera joaten ziren Madrilera eta ministroekin egoten ziren zuzenean. Beldur handia pasa zuten garai batean. Eskutitz asko jaso izan ditu mehatxuekin. Behin kazetari batek telefonoz deitu zion, hil egin behar zutela eta hanka egiteko esaten. Beste behin tipo bat apuntatzen zuela konturatu zen Bergaran. Askotan egon izan da ezkutatuta.

35. Alkartu-nai elkartearen sorrera

- **Erref:** BER-366/002
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:00:36. **Bukatu:** 00:02:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Alkartu-nai elkartearen Bergaran orduan zeuden elkarte guztietako zuzendariak batu ziren. 15 elkarte inguru izango ziren. Hasierako helburua. Lehenengo ekimena herrian anbulantzia jartzea izan zen. Horretarako, "errifak" salduta lortu zuten dirua.

36. Ikastolarentzat gelak moldatzen; dirulaguntzak Madriletik

- **Erref:** BER-366/006
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:11:03. **Bukatu:** 00:14:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolen sorrera. Hasieran jendeak edo elizak utzitako lokaletan hasi ziren ikastolak. Bergaran zortea izan zuten dominikoez seminarioko gelak erabiltzen utzi zitelako. Leku asko zuten, baina moldatu egin behar. Beren kabuz hasi ziren, baina gero jakin zuten Madrilen horretarako dirulaguntzak zeudela. Berak egin zituen gestioak.

37. Udalak farmaziekin zuen zorra kitatu zuten, zinegotzi zela

- **Erref:** BER-366/009
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:15:53. **Bukatu:** 00:17:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Begarako Udalean zinegotzi gisa sartu zenean, Juan Mari Otaegi eta bie ekonomia arloaren ardura eman zieten. Udalak zor handiak zituela konturatu ziren eta zorrik handiena farmaziekin. Adinekoen ospitalearen ardura Udalarena zen eta bertakoek medikamentuak erosten zituzten farmazietan Udalaren kontura. Baina Udalak urteak zeramatzan ordaindu gabe. Beraien lehenengo gestioa zor hori kitatzea izan zen.

38. Lur-sailen edo basoen erosketa eta zaintza, alkate zela

- **Erref:** BER-366/011
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurak eta lur pribatuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Natura » Ingurugiroa

Laburpena:

Begarako alkate zela, herri-lurren edo basoen gestioari ekin zioten, basoak zaintzeko asmoz. Bi aukera zeuden: lehendik zeuden basoak zaindu edo lur-sailak erosi eta landatu. Lehenengo aldiz aurrekontu bat onartu zen Udalean basoak erosteko. Gaur egun Bergarak duen pagadi handiena erosi zuten orduan, adibidez. Auzo bateko gazteek lan handia egin zuten Udalak erositako lur-sailetan landareak sartzen.

39. Bertako basoak biziberritzeko asmoa(k)

- **Erref:** BER-366/012
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Natura » Ingurugiroa

Laburpena:

Bera alkate zela, bertako basoak biziberritzeko asmoa izan zuten.

Udalarentzat ez zen diru-partida handia basoei eskaini beharrekoa eta, Bergarako Udalak egin zuen moduan, beste Udalek ere basoentzat diru-kopuru bat gordetzea eta, ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere beste hainbeste jartzea nahi zuten, asmo hori gauzatzeko. Garai hartan utopia zela, baina gaur egun lor daitekeela uste du. Orain herri askotan sortu dira taldeak; Bergaran Kukubaso, esaterako.

40. Marcelino Orejarekin harremana, presoak nora bidaliko zituzten jakiteko

- **Erref:** BER-366/017
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:28:27. **Bukatu:** 00:30:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

1977an, preso politikoen amnistia ezarri zutenean, presoak askatu eta atzerrira bidali zituzten. Marcelino Oreja zen kanpo-harremanetako ministroa eta haren ardura zen presoak nora bidali. Harekin harremanetan egon zen presoak nora bidaliko zituzten jakiteko.

41. ETAko presoek zalantzak, kartzelatik ateratzerakoan

- **Erref:** BER-366/018
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:30:14. **Bukatu:** 00:34:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Preso politikoentzat amnistia ezarri zenean, eztabaida sortu zen kartzelan zeuden ETAko presoek artean ("miliak" eta "poli-miliak"), ez zekitelako besterik gabe irten behar ziren ala erakundeak esan behar ote zien nola jokatu. Iñaki Esnaola zen abokatua eta Jose Luisi komentatu zion ETArekin hitz egitea komeni zela gauzak argitzeko. Telesforo Monzonen bitartez, haren etxean bildu ziren Donibane-Lohizunen. Ansolak, ETA militarreko kide elgoibartarrak, presoek beraiek erabaki behar zutela ebatzi zuen eta denak ados agertu ziren.

42. Alkateen Mugimenduko buru

- **Erref:** BER-366/023
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:44:08. **Bukatu:** 00:45:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Bera izan zen buru Alkateen Mugimenduan, erabakiak taldean hartu arren. Txibertako bileretan Telesforo Monzonek izan zituen harremanak ETAkoekin eta EAJkoekin, baina gainontzeko alderdi guztiekin berak egin zuen kontaktua. Madrilera joan zirenean Suarezengana edo, ikurrinaren legeztatzean Martin Villarakin egon zirenean ere, bera izan zen buru.

43. Herri Batasunaren sorrera; Euskadiko Ezkerrarekin harremana

- **Erref:** BER-366/024
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:45:32. **Bukatu:** 00:48:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

Altsasun egin zituzten bilera batzuen ondorioz sortu zen Herri Batasuna. Hasieran Euskadiko Ezkerra alderdiko kideak ere bazeuden. Bera zenez, praktikan, Bergarako UNEDeko lehendakari (berez, lehendakaria Gipuzkoako Foru Aldundiko kide bat zen), bertan egin zuten Herri Batasunako sorrerako bilera. Euskadiko Ezkerra alderdikoekin izandako harremanaren inguruko kontuak.

44. Euskaltzaindiaren VIII.en kongresua Bergaran

- **Erref:** BER-366/026
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:48:41. **Bukatu:** 00:52:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Euskaltzaindiaren VIII.en kongresua Bergaran egin zen, UNEDen. Mitxelena, Villasante, Laffitte, Txilardegi... eta orduko euskaltzain garrantzitsuenak bildu ziren astebetez. Jose Luisek eman zion kongresuari hasiera eta amaiera, alkate gisa. Udaletxeko balkoian ikurrina jarri zuen, kongresuak iraun zuen bitartean. Espainiako banderarik ez zuen jarri eta hori debekatuta zegoen, baina ez zen ezer gertatu. Euskara batua kongresu horretan onartu zela dio, baina askotan ez dela aipatzen arrazoi politikoengatik.

45. Egin egunkariaren administrazio-kontseiluan nola sartu zen

- **Erref:** BER-366/028
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:52:57. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Egin egunkaria sortzeko kanpañan bete-betean ibili zen, baina bera ez zen izan sortzaileetako bat. Proiektua asko gustatzen zitzaion eta Mariano Ferrer-en jarraitzailea zen. Proiektuari laguntzeko, dirua jarri zuten hamar herritarren artean. Guztira miloi bat. Egin-en asanbladara joan zen eta egoera oso txarra zela eta zor handiak zituztela ikusi zuen. Berak halakorik espero gabe, administrazio-kontuen arduradun izendatu zuten.

46. Egin egunkariak sorreran izan zituen zorrak nola kitatu zituzten

- **Erref:** BER-366/030
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:57:37. **Bukatu:** 01:00:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Egin egunkariaren administrazio-kontseiluaren ardura hartu zuenean, diru beharra zegoen eta Kutxara joan zen eskean. Donostiako Kutxa Probintzialeko arduraduna Karlos Sistiaga zen. Harremana zuen harekin eta hark egin zituen gestioak behar zuten kreditu izugarria lortzeko. Nafarrek ere jarri zuten dirua, nahiz eta gerora kendu. Javier Irigoien izan zen Egin-en finantzaria.

47. Egin egunkariaren diru-iturriak eta oztopoz betetako bidea

- **Erref:** BER-366/031
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:00:33. **Bukatu:** 01:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Egin egunkarian sasoi oso onak eta oso txarrak izan zituzten ekonomikoki. Garai batean iragarki bidez diru asko jasotzen zuten enpresa handietatik, baina, enpresetara bidalitako mehatxuen erruz, hamabost egunean diru-iturri gabe gelditu ziren. Horren ostean, herri-mailako edizioak sortu zituzten, herrietako iragarkien laguntzaz baliatzeko. Horrez gain, aparteko bi kanpaina handi ere egin zituzten dirua biltzeko. Egin egunkarian jende oso argia ibili

dela lanean eta gauza askotan aitzindariak izan direla dio. Oztopo asko izan arren, aurrera egin zuen egunkariak. Itxi zutenean, oso egoera onean zeudela dio.

48. Intsumisoekin Alcala-ko kartzelara

- **Erref:** BER-366/037
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:08:28. **Bukatu:** 01:10:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bera alkatetzan zegoen intsumisio garaian. Bere semea ere intsumisioa izan zen eta 2-3 aldiz atxilotu zuten, nahiz eta ez espetxeratu. Espetxean zegoen Perez intsumisioaren aldeko ekitaldi bat antolatu zuten eta autobusean joan ziren Alcala-ko kartzelara. Bera ere joan zen eta bidean ez zuen lorik egin, gazteen builarekin. Orduko argazki bat omen dauka eta bera lo agertzen omen da espetxearen inguruetan.

49. Elay lantegia euskalduntzen I

- **Erref:** BER-366/040
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:12:33. **Bukatu:** 01:13:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Nola hasi ziren Elay lantegia euskalduntzen. Erdiak baino gehiago kanpotarrak ziren, erdaldunak, eta besteak euskaraz alfabetatu gabeak. Zuzendaritza-taldean hala erabakita, egunero euskarazko ordubeteko klaseak hartzen hasi ziren.

50. Elay lantegia euskalduntzen II

- **Erref:** BER-366/042
- **Iraupena:** 0:05:53. **Hasi:** 01:14:15. **Bukatu:** 01:20:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Elay lantegiaren euskalduntze prozesua. Nahiz eta artean plangintza zehatzik ez izan, Elay lantegiko zuzendaritzako kideak hasiak zeuden euskara zabaltzearen ideari bueltaka. Anajek langileekin izan zuen harremana, eta lan handia egin zuen euskara "saltzen". Asanblada bat egin zuten eta sorpresaz ikusi zuten, gutxi batzuek kenduta, denek onartzen zutela proiektua. Urte askoren ostean guztiz euskalduntzea lortu zuen lantegiak. Barne-funtzionamendu guztia euskaraz da, nahiz eta hornitzaileekin ezinbestean beste hizkuntzaren bat erabili. Makinak ere guztiz euskalduntuta bidaltzen dizkiete, beraiek hala eskatuta. Euren eredia zabaltzea nahi zuten, baina oraindik ere bakarrak direla dio, nahiz eta beste lantegi batzuk ere aurreratuta joan.

51. Hanoverreko ferian atentzioa eman zien pieza

- **Erref:** BER-366/045
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:20:58. **Bukatu:** 01:23:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Europako makina-erremintako erakusketetara joaten ziren. Behin Hanoverreko erakusketan arreta eman zien trokelaren pieza batek. Mikratan lan egiten dutenez, pieza hain erraz ez gastatzeko eta gutxiagotan aldatu behar izateko, pelikula berezi bat eman zioten gainetik, gogorragoa izan zedin. Beraiei asko interesatzen zitzaien hori, baina momentuz ez zuten jakin non egiten zen.

52. Liechtensteineko Balzer enpresarekin harremana nola hasi zuten

- **Erref:** BER-366/046
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 01:23:52. **Bukatu:** 01:28:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Beraien makinetako bat (ebaketa zehatzekoa) Suitzan bakarrik egiten zen eta hara joaten ziren batzuetan aurrekontuak eztabaidatzera. Hara joan ziren batean jakin zuten Hanoverren ikusitako pieza hori Liechtensteinen egiten zutela, Balzer lantegian. Orduan, zuzenean hara joan ziren eta haiekin harremanetan hasi ziren. Balzerren makinak funtzionamendua.

53. CDak egiteko asmoa

- **Erref:** BER-366/049
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 01:29:39. **Bukatu:** 01:33:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

CDak hasi zirenean, CDak fabrikatzea bururatu zitzaien. Bi enpresa bakarrik zeuden orduan: Philips eta Sony Tokion. Balzerrek harremana zeukan haiekin, beraiek bakarrik egiten zuten elementu bat zeukatelako biek beren instalakuntzetan. Hori dela eta, Philips eta Sony ikustera joan ziren. Dena oso sofistikaturik. Know-how. Philips-ekin egin nahi izan zuten tratua. Garantia eskatu zioten, baina ez zien eman eta ez ziren hasi langintza horretan.

54. Balzer enpresarekin nola egin zuten bat

- **Erref:** BER-366/051
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:34:01. **Bukatu:** 01:37:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Balzer enpresak "alto vacío"ko labeak bakarrik egiten zituen garai batean, baina gero piezei gainera pelikula berezia emateko makinak ere egin nahi izan

zituzten. Horretarako, Euskal Herriko edo Kataluniako enpresaren batekin lan egin nahi zuten, Espainian artean ez zegoelako teknologia hori. Katalanekin ez ziren konpondu eta Euskal Herriko zenbait enpresa bisitatu ostean, Elay-rekin lan egitea erabaki zuten. Harreman handia izan zuten (eta dute) Balzer enpresako orduko arduradunekin, baita maila pertsonalean ere. Balzer multinazional bati saldu ziotenean, enpresarekin zuten lan-harremana hautsi zuten.

Elkoro Unamuno, Jose Luis | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com